

“EUSKAL HERRITIK MUNDURA, MUNDUTIK EUSKAL HERRIRA”

euskal herriak bere eskola

-oinarrizko testua-

A) MUNDUTIK EUSKAL HERRIRA

“Mundutik Euskal Herrira” atal honetan nazioarte mailan gertatzen ari diren zenbait aldaketan berri ematen da, hauek euren testuinguruan kokatuaz eta Euskal Herrian duten eragina kokatuz. Horregatik antolaketak *zoom* bat egiten du, lehenengo mundu mailako tendentziak kokatuz, ondoren Europa, ondoren Estatuak eta azkenik hauen eragina Euskal Herrian. Aipatu beharra dago batzuetatik besteetara dauden aldaketak modu isolatuan aztertzen baditugu ez diruditela kausalak, baina honek badu arrazoi garbi bat: munduan prozesu ekonomikoak direnak, estatuetan politikoak dira eta Euskal Herrian akademiko-administratiboak baliran aurkezten zaizkigula, hain zuzen ere..

•MUNDUA

NBEk ez du mundua gobernatzen, hori argi dago, baina badaude hainbat *gobernu* transnazional funtzio horiek bereganatu nahi dituztenak: Munduko Merkatzaritza Elkartea (WTO), Munduko Bankua (MB), Garapen eta Kooperazio Ekonomikorako Erakundea (OCED), European Round Table of Industrials (ERT)... Guzti hauek hainbat agiri garatu dituzte, guztiak ere logika neoliberallean oinarrituta. Honela WTOk GATS akordioa, Europar Batasunaren eskutik Lisboako estrategia eta abar.

WTOk garatutako GATS akordioa da munduko hezkuntzaren gaineko azterketa egiterako garaian garrantzia gehien hartzen duena. Akordio honen bidez Goi-mailako hezkuntza esparrua merkantilizatzeko bideak irekitzen dira, hezkuntza 2010erako esku pribatuen bidean egon behar duten zerbitzuen artean kokatuz. GATS akordioa sinatu duten 144 estatuak derrigortasuna dute akordioa betetzeko eta dagoeneko euren aplikazioa martxan dago (hainbat enpresa publikoen pribatizazioa eman da jada munduko estatu gehienetan).

Hala ere, GATS akordioa ez da isolatuta ematen den akordio bat. Berau hainbat lobbyk eta erakunde transnasionalek egindako presioaren ondorioetako bat baino ez da. OCEDek hezkuntzaren pribatizaziorako emandako printzipioak jarraitzen ditu eta Mundu Bankuak herri pobreei diru-laguntzak emateko kriterioak jartzen ditu mahai gainean (irakaskuntza pribatizatzea da kriterioetako bat). Gainera estatuak hezkuntza eskubideak bermatzeko duten funtzioaren desagerpena bultzatzen duen logikan ere murgiltzen ari da, ekinbide publiko guztiak esku pribatuetan utziz. GATSaren ideia orokorra sinplea da: zerbait nahi baduzu erosi. Erosi badaiteke negozioa da. Negozioa bada saldu daiteke.

GATS akordioaren eragina larria da. Mundu mailan ematen ari den eraso kapitalistaren jatorrietako bat da gaur egun. Uraren, trenbideen, elektrindar konpainien... pribatizazioaren gailentzea hemendik dator.

Bere eragina hezkuntzan ezin da larriagoa izan: honen merkantilizazioa bideratzen du lau zutabetan:

- unibertsitateen mugikortasuna,
- unibertsitateen mugikortasuna,
- internet bidezko irakaskuntza,
- material pedagogikoaren salerosketa.

Lau kriterio hauek egokitzen ari dira gaur egun munduko hainbat hezkuntza sistema, baita Europar Batasuneko sistemen multzoa ere. Japonian eta Australian emandako aldaketak adibide izaten ari dira, OCEDek finkatutako irizpideen arabera konpetitibitatea bultzatzen dutelako. Hego

Amerikako hainbat puntutan ere modu bortitzean aplikatzen daude: Bolivian onartutako legearen arabera Magisteritza eskola publikoetan ikasten dutenen tituluak ez du baliogarritasunik izango, bai ordea eskola pribatuetakoak.

Hezkuntzaren pribatizazioak badu hain agerizkoa ez den beste faktore bat: testu-liburu eta material pedagogikoena. Geroz eta gutxiago erabiltzen dira irakasleek euren kasa jorratutako materialak eta geroz eta gehiago editorial multinazionalak eginikoak. EEBBtan batez ere enpresa handiek patrozinatzen dituzte materialak (Monsanto, McDonalds, Dow Chemical...) euren intereseko diren edukiak hobesteko asmoz. Gainera hainbat herrialdeetan doako materialak ematen hasi dira publizitatearen truke. Edison Inc. enpresak (Channel One telebista katearen jabez) 10 minutuko hezkuntza-telebista saio bat ikustera behartzen ditu egunero 8.000.000 ikasle telebistak eta bestelako materialak oparitzearen truke, eta 10 minutu horietatik 2 minutu baino ez dira hezkuntzari lotuak; beste 8 minutuetan eguraldia, kirolak eta publizitatea dira (M&M's, Bounty, Coca-Cola eta bestelako jaki "osasungarriak" eta Channel One katea bera.). Duen publizitatearekin urteko egun oso bat galtzen da publizitatea baino ez ikusten. Tendentzia hau ikastetxeen kudeaketa bera erostera hedatu da. Edison Inc. berak hainbat zuzendari eserleku erosi ditu, pribatizazio estali bat emanez modu honetan. Hona hemen beste hainbat datu: EEBBtan eskola ekimeneren babestea %248 igo zen 1991-2001 epean. Epe berdinean eskola eta freskagarri enpresen arteko harremanak %1384 igo da. Eskola guneak publizitate euskarri moduan erabiltzeko akordioak %539. Testu-liburuen eta bestelakoen babestea %1875 igo da.

Guzti honen aurrean hainbat esperientzia burutu izan dira munduan zehar. Horietatik garrantzitsuenak, agian, eraikuntza ildoetan kokatzen direnak dira, hau da, Hezkuntza herritar bat eraikitzeko proiektuak. Honen adibide garrantzitsu dira Madres de Plaza Mayoko Unibertsitatea edo Kubak Venezuela eta Boliviarekin egiten dituen alfabetatze planak. Herritarren parte-hartzea sustatzen ari da hainbat lekutan eta bereziki Hego Amerikan garrantzi handia dute plan hauek. Honen mugari garrantzitsua Globalizazioaren Aurkako Mugimenduak eginiko Porto Alegreko Munduko Jendarte Foroan egindako Munduko Hezkuntza Foroak dira. Foro hauek geroz eta ugariagoak dira eta jada Foro Tematikoak eta kontinentalak planteatu dira. Foro guzti hauetan planteatu diren ideietan Hezkuntza eskubide unibertsal bat dela eta hezkuntza sistemen eraikuntzak herriak duen papera dira garrantzitsuenak.

•EUROPA

Europar ikusten dugun aplikazio argiena Bologna Prozesua da, baina ez da bakarria. Bolognak goi-hezkuntza esparrua eraldatzen badu ere estatuek egiten dituzten aplikazioetan hezkuntza ertaina ere aldatzen ari dira eta goi-hezkuntzaren azkeneko zatia den ikerketa ere pribatizazio bidean dago. Esan daiteke Bolognak ez duela soilik goi-hezkuntza zauritzen, baizik eta hezkuntza zerbitzu salgarri bat izateko egin behar diren pausu guztietan Hezkuntza Sistemak bere osotasunean zauritzen dituela.

Bologna Prozesua GATSaren aplikazio europearra baino ez da, berau, noski, logika berri baten irudiarekin salduta. Bologna jatorri ekonomiko nabaria badu ere, publikoki 1998an Sorbonako Deklarazioan oinarritzen da. Bertan, EEBBen ostean, Hezkuntza Paketeak kontrolatzen dituzten 3 Estatu handienak eta Italia bildu, eta Goi-Mailako Hezkuntza Esparru Europearra (GHEE-EEES) sortzeko konpromezua hartu zuten. Hurrengo urtean hainbat estatuetako Hezkuntza Ministroek Bolognako Deklarazioa sinatzen dute, baina ez da 2000. urtera arte unibertsitarioengana helduko. Urte honetan Salamancan eta Göteborgen errektore eta ikasle talde ofizialek (gutxi batzuk kenduta) oniritzia ematen diote testuari eta 2001 urtean Pragan bultzada berri bat ematen zaio testuari. Ondoren Berlin (2003) eta Bergen (2005) izan dira sinaduren lekuko. 2007an Londonen bilduko dira berriro Hezkuntza Ministroak euren esanetan "Bolognaz haruntzago joateko". Gaur egun Europar Batasunaz gain beste hainbat estatu biltzen dira, 40 baino gehiago.

Bologna Prozesua erantzun makroekonomiko baten aurrean egindako erabaki politikoa da, ekonomiaz inon hitz egiten ez badu ere. Hala ere konpetitibitatea eta merkatuetara egokitze helburua duela aitortzen du. Gainera deklarazioa Lisboako estrategian kokatzen da. Lisboako estrategia Europar Batasuneko herriek euren gastu publikoa murriztu eta "ongizatearen

estatuarekin” bukatzeko egiten duten apustua da. Bolognako Deklarazioak estatuek euren legediak eraldatzeko agintzen du, modu honetan unibertsitate konpetitiboak ezartzeko. Konpetitiboa diotenean dirua ematen duela esaten dute.

Bologna bezalako ekimenak bestelako prozesu ekonomiko orokorragoen baitako elementu bezala ulertu behar dugu; ondo definitutako eskema ekonomiko-politiko batetan elkar elikatzen duten dinamika-sare bat bezala alegia. Puzzlearen pieza bakoitzak bere funtzioa betetzen du, norbanakoan zein kolektiboen eskubideak sal-erostea helburu duen sistema honetan.

Bolkenstein direktiba izan daiteke elkar elikatze duten dinamika-sare honen erakusle argia. Besteak beste, enpresen jatorrizko herrialdeetako arauak Europako edozein estatuan ezarri ahal izatea helburu duen norma honek, Bologna Prozesuaren eskutik etorri den profesionalen titulazioen homologazioari, bete betean laguntzen dio multinazionalen helburua den eskubiderik gabeko lan-esku merkearen filosofia zabaltzeari; profesionalen mugikortasuna areagotzeko aukera, lan baldintza okerrenak dituzten herrialdeen lan eskubideekin. Horra hor liberalizazio prozesu orokorraren logika!

Baina ez da bakarrik tituluen homologazioak Bolognak logika neoliberal honi bultzada emateko planteatzen duen aldaketa bakarra. Bi graduetako sistemaren orokortzea, ingeleraren nagusitasuna beste hizkuntzen kaltetan (zeresanik ez normalizatu gabeko hizkuntzei begira) unibertsitateek finantziabide propioak bilatzearen beharra edota europar kreditu sistemaren (ECTS) bitartez planteatzen diren aldaketa pedagogikoak eskema kapitalista honen mesedetan planteatzen diren neurriak dira.

Edozein kasutan ez da unibertsitate eremua European mundu mailako tendentzia hauei egokitzeko aldaketak planteatzen ari den hezkuntza arlo bakarra. Egia da bilakaera ekonomiko horren fase honetan unibertsitatea ERT (European Round Table) bezalako lobby eta multinazional ezberdinen begi-puntuari dagoen esparrua dela, batez ere, logika ekonomiko horretan bete betean murgilduko diren profesionalen sortzaile delako, baina emeki-emeki eremu ez unibertsitariora zabaltzen hasiko, eta ari, den dinamika baten aurrean gaude.

Bologna Prozesua bezalako ekimen zehatz eta argirik ez dugu ikusten 18 urte bitarteko hezkuntzan, baina honek ez du inondik inora esan nahi horrelakorik bideratzeko bitartekorik martxan ez denik. Europar Batasuneko estatuen baitan bideratzen ari diren hezkuntza sistemen erreformak logika honi erantzuteko asmoarekin ere diseinatzen dira. Unibertsitateek bizi duten masifikazioa aipatu ohi da erreforma hauei ekiteko aitzakia bezala, honen atzean goi mailako hezkuntzaren elitizazioa eta teknifikazioa direnean sakoneko arrazoiak. Hala ere aldaketak ugariak dira, alde batetik Bolognara egokitzeko, baina beste alde batetik langile ez kualifikatuak sortzeko prozesuan Lanbide Heziketen eta Gizarte Garantia Programen birmoldaketak egiten ari direlako.

EEBBtako ereduraino iritsi ez, baina badira hainbat herrialde eredu bera jarraitzen dutenak. Horietako bat Belgika da, Europako “muina”. Bertan Coca-Cola eta eskola sistemaren arteko harremanak geroz eta estuagoak dira eta kirol jarduerak babesteaz gain eskolei euren edarien kontsumoarekin harremanetan dauden “opariak” egiten dizkiete. Modu honetan eskoletan Coca-Cola edateko animatzen dituzte haurrak.

Finean Europar Batasunaren eraikuntzak aspaldi Euskal Herrian ikusten ari garenen berregituratzen bat baino ez da: boterea ahalik eta urrutien uztea eta herritarroi eztabaidetan parte-hartzeko eskuduntza deuseztatzea. Euskal Herriak Europatik bere Hezkuntza Sistema Propioa eraikitzeke eskubidea jaso beharrean beste traba bat baino ez du ikusi azkeneko urteetan. Lehenago Espainiar eta Frantziar estatuetako legediarekin topatzen baginen orain Europarrekin egiten baitugu eta hauek herrien Europarekin bukatu eta kapitalaren Europa eraikitzeke bideratuak dira.

Mundu osoan zehar gertatzen den bezala eraikuntza eta alternatibarako hainbat prozesu egon dira European zehar. Bereziki garrantzitsuak dira Europako Hezkuntza Foroa eta hainbat ikasle mugimendu eta elkartek egindako akordioak (2005eko Azaroak 17, Europako Ikasle Foroa...). Era berean ezin ditugu ahaztu Europako hainbat lekuetan eginiko proiektu herritarrak.

•ESTATUAK

Euskal Herria bi estaturen menpe dago. Bi estatu hauek euren legedi guztiak erabiltzen dituzte Euskal Herriaren eta euskal herritarren aurkako dinamika jartzeko garaian. Gainera ez zaigu aitortzen erabakitze eskubidea eta bien bitartean hezkuntza lege estatalista eta neoliberalak ezartzen dituzte.

Estatu Espainiar zein Frantziarrak hainbat lege eta lege-marku kaleratu dituzte aipatutako erreformei ekiteko. Honela Frantziar estatuak *Fillon legea* (Frantziako Unibertsitate Legea) egin zuen Goi-Hezkuntza esparrua eta irakaskuntza ertainean eragiteko eta LOPRI legea egiten diren ikerketak enpresa pribatuen esku (eta bakarrik euren esku) uzteko; Espainiar estatuak LOU eta LOCE egin zituen irakaskuntza eta ikerkuntza unibertsitarioa legialatu eta irakaskuntza ertainan eragiteko. 05/06 ikasturtean Espainiar estatuak ReLOU eta LOE martxan jarri ditu aplikazioaren 2. fasean egin ahal izateko.

Hauen ondorio zehatzak hasiak gara aurreikusten. Frantziar estatuan planteatzen diren eragin artean esandako goi-irakaskuntzaren azken fasearen (ikerkuntza) enpresen beharretara egokitzeko planteatzen ari diren pausuak lirakeke larriena. Modu honetan graduondoko guztiek enpresa baten akordioa eskaini beharko dute baliagarriak izateko.

Espainiar estatuaren kasuan graduondokoak arautzeko aldaketak ere egin dira; enpresa pribatuek titulu hauek ateratzeko mugarik ez duten bitartean, estatuak administratzen dituen unibertsitateek komunitate autonomo bakoitzean jartzen diren filtroak gainditu beharko ditu. Horrekin batera, bi estatuen kasuetan ez da aurreikusten beka sistemaren handiagotzea, haatik, aipatutako elitizazioaren eskutik eta gradu ikasketen kalitatearen degradazioaren eskutik gutxi batzuek bermatu ahal izango dute hezkuntza integrala eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea.

Lanbide Heziketaren kasuan, gorakada garrantzitsu bat ezagutzen ari da Europa osoan, baita bi estatu hauek ere. Estatu espainiarraren kasuan Lanbide Heziketaren legea martxan jarri da eremu hau berordenatzeko; bertan enpresen eta lanbide heziketako ikastetxeen harremana estutzearekin batera, lehenengoek bigarrenaren ikas-lerroen diseinuan eta barne funtzionamenduan duten pisua handitzea aurreikusten da.

Derrigorrezko hezkuntzaren kasuan, bai LOEn bai Fillon legean ikasleen itinerarioak dibertsifikatu edo mantentzen dira. Modu honetan irakaskuntza ertainean ere “balio” dutenen eta “balio” ez dutenen arteko bereizketan sakontzen jarraitzeari bide ematen zaio, hezkuntza gizabanakoaren zein kolektiboaren garapenerako tresna bezala ulertzeko erari uko eginez eta azken hauek titulaziorik gabeko lanetara bideratuz.

Mundua atalean aipaturiko testu-liburuen eta bestelako materialen erosketa ez da EEBBtako punturaino erosi, baina merkatua hainbat multinazionalen esku egoten jarraitzen du. Testu-liburuen kasuan etekin ahalik eta handiena ateratzeko sortzen dira: bertan idaztea nahitaezkoa den liburuak erabiltzen dira, adibidez. Gainera liburu hauen fotokopiak erabiltzea debekatzen duten lege geroz eta estuagoak onartzen dira. Irakasleentzat onurak ekartzen dituzten “irakaslearen liburua” egin eta kasu askotan eskolari bidaltzen dizkiete.

Egon dira azkeneko urteetan hainbat kasu non enpresek testu-liburuen erosketa egin duten, nahiz eta ez diren aurreko kasuak bezain famatuak. Hala ere hainbat euskarri pedagogiko oparitzen dituzten enpresak geroz eta gehiago dira.

Itxuraz funts pedagogikoa duten aldaketa eta hezkuntza erreforma hauen atzean, gorago aipatutako logika ekonomikoaren pisua geroz eta nabariagoa ezin izkuta. Baina kateak oraindik badu beste kate-begi bat, gurea.

•EUSKAL HERRIA

Euskal Herrian ematen diren aldaketak, sarreran esan bezala, administratiboak eta hezkuntzari zuzenean loturikoak dira, baina logika berdinen azpian kokatzen dira. Hala ere ezin dugu ahaztu Euskal Herrian estatu eta nazio gehienetan dauden 2 hezkuntza adarrak (publikoa eta pribatua) ez dutela gure hezkuntza panorama guztia zehazten. 60ko hamarkadatik hona herri ekimenaz estatuaren definizioan pribatu gisa agertu baina herritarren kontzientzian publiko eta pribatuaren arteko eztabaidaz gaindi kokatzen diren eskolak sortu dira: ikastolak. 90eko hamarkadan emandako ikastolen publikazioaz geroztik publiko-pribatu dikotomia ofiziala are eta sakonagoa egin dela dirudi. Baina ezin dugu ahaztu hainbat ikastolak publikatu ostean euren printzipioekin jarraitu dutela sare “publikoan” eta, era berean, hainbat ikastolek hasierako printzipioetatik aldendu eta oinarri neoliberalerantz egin dute bidea ikastolen sare horretatik aldendu eta euskaraz irakasten duten “pribatuak” dira. Publiko, pribatu eta herritar kontzeptu honek garrantzia du beraz ikerketa egiterako momentuan.

Egondako aldaketak zerrendatuz, *Iztueta Legeaz* ezagutzen duguna, beragandik eratorriko UPVko estatutuak eta Deustu-Mondragon-UPV balizko harreman sarea (“Euskal Herriko Unibertsitate Sistema” izeneko) LOUaren aplikazioa baino ez dira, hau da, Bologna aplikatzeko lege baten aurrean egiten den aldaketa bat. Sakoneko eraldaketarik planteatu ezin duen aldaketak, oinarriko elementuen funtsa estatu mailako legeek ezartzen bait dute.

Era berean unibertsitateek Bolognako Deklarazioak planteatzen dituen neurriak zuzenean aplikatzeko planak garatzen hasi dira. Mondragon Unibertsitateak Mendeberrri proiektua garatu du, nahiz eta plan honek ez dituen ondorio beretsuak izan MUK dituen fakultate ezberdinetan (Politeknikoan oinarri neoliberalerantz jo duen bitartean HUHEZIn aldaketa pedagogikoekin gehiago lotu da); Deustu Unibertsitateak, Groningengo unibertsitatearekin batera, beste unibertsitate guztiek kopiatu behar duten Tuning proiektua sortu du; eta bai UPV, zein UPNA, ECTS kredituak erabiltzeko planak garatzen ari dira.

Nafarroa garaian eta Pyrenées Atlantiquesen unibertsitate zein irakaskuntza ertainetako legediak ez dira aldatu. Hala ere UPNAk egindako estatutuak eta OPUSEk egindako konbergentzia planak zentzu berean kokatzen dira. Paueko unibertsitateko Baionako kanpusak ere LOPRI zein Fillonen arabera era aldaketak egin behar ditu.

Bologna Prozesuaren aplikazioa kaotikoa izaten ari da. Euskal Herriko unibertsitate eremuak eraldaketa sakona jasango badu ere komunitate unibertsitariori ez zaio galdetu eman beharreko aldaketen zentzuaren inguruan. Gainera, ixiltasuna eta “jada hartutako erabakien” politika nagusi da herri honen beharren arabera baino, enpresen beharren arabera diseinatua dagoela ematen duen prozesu politiko-ekonomiko honetan.

Aldi berean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari begira, Iztuetak diseinatutako Lanbide Heziketa plana burutzen ari da. Bestetik, LOEra egokitzeko asmoz, Gasteizko Gobernutik legegaldi honetan Eskola Lege berri bat sortzeko apustua egiten da. Hauek, noski, europar konbergentziaren oinarrietan kokatzen dira. Ikastetxei begirako hizkuntza ereduak dagokienez, Nafarroa Garaiko gobernuak planteatutako I eta J eskola ereduak ere ingelesaren gailentzearekin harremana dute; EAEn ere hirueletasun plan bat aurkeztua dago eta hainbat lekutan froga pilotoak egin dira (MUK eta UPVk jada horrelako planak garatu dituzte, non euskarazko klaseak kendu eta ingelerazkoak eskaintzen diren).

Ikastetxe askotan beste faktore bat ikusten ari gara egunotan: zerbitzuen esternalizazioa. Fenomeno hau ez da ematen kasu konkretu batean bakarrik, baizik eta orokorra den tendentzia baten barruan. Honela udaletxe batzuek euren zerbitzuak enpresa pribatuaren esku uzten dituzte (0-3 urteko kasuetan, adibidez), beste batzuk azpikontratatu dituzte (ludotekak) eta beste kasu batzuetan ikastetxeak beraiek dira zerbitzuen parte bat pribatizatzen dituztenak: jantokiak, monitorea

atsedenaldietarako, eskola-kanpoko ekimenak... Negozio interesgarria hezkuntzaren kalitatean eta bertako langileen lan baldintzetan gehiegi erreparatzen ez duten administrazio publikoentzat.

Lehen esan bezala ikerketa egiterako garaian ikastolen papera ere aztertu behar da. Datu hauek eskuratzea zaila da, administrazio autonomikoek ere hezkuntza pribatuan sartzten dituztelako 1992. urtetik. Hala ere datu gisa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleen %44ak hezkuntza “pribatuaren” aldeko hautua egiten duen bitartean %51raino igotzen da zifra hau Haur Hezkuntzan. 2005/2006 ikasturtean Arabako ikasleen %20ak erdarazko ikastetxe pribatu-erlijiosoetan ikasten zuen. Era berean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen %39a publiko (administrazioak zuzendurikoa) den bitartean ikasleen %47ak ikasten du bertan. Hau da, ikasle/ikastetxe ratioa %38 altuagoa da ikastetxe “publikoetan” “pribatuetan” baino, masifikazioa handiagoa dela frogatuz.

Enpresaburuen jarduera hezkuntzan geroz eta handiagoa da. Honela bai Unibertsitateetako Gizarte Kontseiluetan eta bai Lanbide Heziketan boterea hauen esku uzten ari da. Nafarroa Garaian 90eko hamarkadan Lanbide Heziketak zeuden ikastetxeetako Eskola Kontseiluan eskualde edo herriko enpresari elkarteko kide bat zegoen, udal administrazioek zuten kopuru bera, hain zuzen ere. Gaur egun UPVn, adibidez, enpresa elkarrekin unibertsitate estamentuek haina botere dute (3 enpresaburu zuzenean hautatuak, eta irakasle, langile eta ikasle bana estamentuko ordezkari gisa).

Euskal Herrian ere diru-laguntza duten apunteen hainbat kasu daude. Horren adibide bat jartzearen farmazia-enpresa batek UPVn Farmazia ikasten duten ikasleen apunteak ordaintzen dituela aipatu daiteke. Gure kasuan, gainera, testu-liburuen merkatu erraldoi honek beste hainbat ondorio negatibo ditu, bere produkzioa ez baita egiten kasu gehienetan Euskal Herrian, baizik eta multinazional hori dagoen lekuan. Honek curriculum arrotzen sarrera errazten du ere.

B) EUSKAL HERRITIK MUNDURA:

•EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA izateko ESKUBIDEA

Herri baten biziraupenean, badira funtsezkoak diren osagai batzuk ; hezkuntza horietako bat da, baina hori baino gehiago ere bada. Hezkuntza, herri baten etorkizuna bermatzeko ezinbesteko tresna da. Belaunaldi berriek osatuko baitute biharko jendarte. Jasotzen duten heziketa nolakoa, biharko jendarte halakoa. Horrela, hezkuntza euskaldunak, jendarte euskalduna sortuko du. Hezkuntza askatzaileak, jendarte askea.

Hezkuntza Sistema bat herri baten garapenean, berrikuntza zein eraldaketarako funtsezko bitartekoa da. Hezkuntzaren bidez gaitasun batzuk lortu, ezagutza batzuk eskuratu eta balore batzuk barneratzen ditugu, ondoren gure herriaren mesedetan jarriko ditugunak. Hezkuntzaren xedea herritarrei errelaitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, herrikide gisa eta izakide gisa osoki edo integralki garatu daitezten.

Euskal Herria herri den neurrian, munduko beste edozein herrik bezala Hezkuntza Sistema Propioa izateko eskubidea du, hots, euskal herritarren hezkuntza eskubideen bermea ekarriko duen Euskal Hezkuntza Sistema izateko eskubidea du.

Edozein herrik Hezkuntza Sistema Propio bat izateko eskubidea nazioarteko legedietan onartua dagoen errealitate bat da. Bide honetan ezin ditugu aipatu gabe utzi 1948ko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala, 1960ko Irakaskuntza Mailako Gutxiespenen Aurkako Hitzarmena edo eta 1976ko Herrien Eskubideen Aitorpen Unibertsala, non herri bakoitzak bere . Hala ere, dokumentu hauek guztiek aitorpen bat besterik ez dute onartzen, herri bakoitzari dagokio eskubide honen gauzapean zein garapena.

Lege marko zein arau sistema ororen gainetik, esan behar dugu Hezkuntza Sistema Propio bat izateko aldarrikapena herri oso baten oihua dela hori nahiko sostengu dela bere buruaren jabe den herriak eskubide izaera aitortzeko. Herri mugimendu, eragile zein sektore ezberdinek urteetan zehar aldarrikaturiko mezua da gaur egunean euskal jendartearen gehiengo zabal batek bere bizkar gainean jasotzen du: *Euskal Hezkuntza Sistema Propioa izateko eskubidea!!*

Euskal herritarren hezkuntza eskubideak:

Herri bezala dagozkigun hezkuntza eskubideen berreskurapean lan handia egiteaz gain, lan mardula egin da eskubide horien definizio eta zerrendatzean.

Batetik, Euskal Herriko instituzio nazionala den **Udalbiltzak** 2002.urtean Euskal Herriak dituen hezkuntza eskubideak jaso zituen Euskal Herritarren eskubideen Kartaren baitan.

Bestetik, 2002.urtean egoniko Nazio Eztatidaren ondorioz sorturiko **Nazio Garapenerako Biltzarrak** ere bere gain hartu zuen Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala izateko duen eskubide eta beharra eta ildo horretan aurrera pausuak emateko bitarteko ezberdinak martxan jarri ditu. Horietako bat Nazio Garapenerako Biltzarraren egiturapean sorturiko Hezkuntza Batzordea da non Hezkuntza Sistema Nazionalaren bidean Euskal Herriko Hezkuntza Akordioa ekoiztea helburu duen. Akordio horrek atal ezberdinak jasotzen dituen arren, akordio guztiaren bihotza euskal herritarren hezkuntza eskubideak dira. Euskal Herrian lehenengo aldiz euskal herritarroi dagozkigun eskubideen zerrendaketa zehatza egiten da bertan, horretarako Udalbiltzak mahai gaineraturiko hezkuntza eskubideak aintzat hartuta. Akordioa erabat itxita ez dagoen arren (2006ko ekainerako kaleratzea espero da), euskal herritarroi dagozkigun hezkuntza eskubideen gaineko adostasuna erabatekoa da.

Hona hemen Akordioaren zirriborroan zerrendatzen diren **EUSKAL HERRITARREN HEZKUNTZA ESKUBIDEAK**:

1. Euskal Herrian bizi den herritar orok, hots, euskal herritar guztiek, nazioarteko oinarrizko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubideetan oinarrituta, Euskal Herrian bertan edozein ikasmaitatan edota ikas arlotan ikasteko eskubidea dute, eta ez da inor baztertuko arrazoi politikoak, ekonomikoak, sozialak, jatorriarekin edo sexuarekin lotutakoak, ideologikoak edo akademikoak oinarri hartuta edo urritasun fisiko edo psikikoren bat izateagatik.
2. Euskal herritar orok eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, ikasgune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du.
3. Euskal herritar orok Euskal Herriko curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea du, eta bertako nahiz munduko jendarte zein kultur adierazpideak kontutan hartuko dira.
4. Euskal herritar orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, parekidetasuna lortzeko metodologia didaktiko baten arabera hezkuntza jasotzeko eskubidea.
5. Euskal herritar orok hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea du: eskubide demokratiko guztiak (adieraztekoa, biltzekoa...) bermatuz, eskola komunitatearen pluraltasuna kontutan hartuz, antolaketa zein kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea gauzatuz, eta eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eta herritarren hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea bermatuz.
6. Euskal herritar orok eskubidea du euskara eta jakintza ardatz izango dituen Euskal Unibertsitate Sistema izateko, Euskal Herriaren beharrak aseko eta bideratuko dituen.
7. Euskal herritar orok eskubidea du hezkuntzaren bidez bere ahalmen guztiak garatzeko, pertsona kritiko eta aske izateko bidean.
8. Euskal Herriko ikasguneetan sartzen diren etorkin berriei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkie.
9. Hezigune bakoitzeko hezkuntza komunitateak bere Hezkuntza Proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea du.
10. Hau guztia posible izan dadin, euskal herritarrek hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dute. Hau da, Europako hezkuntza esparruan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea du.

• Hezkuntza sistema propioa izateko ESKUBIDE URRAKETA:

Munduan aldaketa handiak ematen ari dira azken hamarkadatan eta Euskal Herria ez da errealitate sozio-politiko-linguistiko isolatu bat. Zentzu honetan, aldaketa hauen ondorioak lehen mailan pairatzen ditu.

Aro berri batean sartzen ari gara, industria arotik ezagutza arora igarotzen ari gara non informazio zein digitalizazioaren jendartea nagusitzen ari den. Honekin batera, boterea eta egitura politiko-administratiboak ulertzeko beste ikuskera bat nagusitzen ari da non ekonomiaren irizpideak gidatuta, mugaz gaindiko “super ekonomiak” duten boterea eta berauei egokitzen zaien egitura politikoak sortzen doazen. Ekonomikoki boteretsuenak diren estatuak hartzen dituzte erabakiak euren logika neoliberalari jarraiki eta ahotsa ukatzen zaien herrialdeen beharrei entzungor eginez inposatzen dituzte.

Euskal Herria bi Estaturen eta lau administrazioen pean bizirik dirauen Nazioa da, mendeetan zehar pairaturiko inposaketan gainetik bizirik dirauen herria da. Herri den heinean egun ukatuak dituen eskubideen alde lanean jarduten duen herri zaharra da. Belaunaldiz belaunaldi euskaldunok gai izan gara gure kulturaren, hizkuntzaren, hezkuntzaren... adierazpide nagusienak direnak mantentzen, transmititzen eta garai berrietara egokitzen. Bide horretan Euskal Herria herri gisa ailegatu da XXI.mendera.

Euskal Herriak herri bezala berezko dituen eskubideak ukatuak dituen heinean, euskaldunoi hezkuntza eskubideak ukatzen zaizkigu. Gure herriaren beharrak aintzat hartzen ez dituen unibertsitateak, curriculum inposatuak, Euskal Herrian ikasteko ezintasuna, euskaldunak ez duten ereduaren ezarpena... dira euskal herritarren eguneroko ogi. Euskaldunoi hezkuntza sistema propio bat izateko edozein herri duen eskubidea ukatu zaigu.

Hona hemen Euskal Herriaren hezkuntza egoeraren zertzelada batzuk:

a) Eskoletan garatzen den curriculum:

Hasteko, esan beharra dago Euskal Herrian ez dagoela curriculum bakar bat. Pairatzen dugun zatiketa administratiboa dela eta, **hiru curriculum ofizial ezberdin daude indarrean**. Nafarroan, batetik, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bestetik, curriculum autonomikoak ditugu (EAE: *Oinarriko Curriculum Diseinua*; Nafarroan: *Nafarroako Curriculum ofiziala*). Bi curriculum hauetan estatuak edukien %55 finkatzen du, gainerako %45 erkidego bakoitzaren esku utziz. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan Frantziako estatuak definitzen du curriculum osoa (curriculum hitza baino, *hezkuntza programa* kontzeptua erabili ohi da).

Testuliburuak igortzen duten curriculum

Testuliburuaren jabe dena, irakaskuntzaren jabea ere izango da. Halaxe esan zuen Jules Ferry-k, frantses hezkuntza sistemaren oinarriak ezarri zituen ministroak, duela mende t´erdi. Eta bere aurreikuspenak bete egin dira neurri handi batean.

Izan ere, gaur egun **testuliburuak jaun eta jabe dira**. Euskal Herriko ikastetxe gehienetan, irakasgai gehienetan, testuliburuak hartzen da hezkuntza prozesuaren oinarritzat, gero eta gehiago. Ez luke horrela izan behar; ez da horrela izan beti. Euskal Herrian, hezkuntza euskaldun eta askatzailea praktikan gauzatzeko helburuaz, esperientzia pedagogiko aberatsak garatu dira, baina kapital pedagogiko hori kinka larrian dago. Denboraren eta gehienbat inertziaren poderioz, aipatutako esperientzia horiek guztiak zimeltzen joan dira, euskal pedagogi iharduera pobretzen joan da eta hezkuntza prozesu osoa testuliburu bakar bat lantzerantz murriztu da.

Afera horrek hausnarketa pedagogiko sakona eskatzen du, baina hori dokumentu honen helburuetatik haratago doa. Kontua da testuliburuak garrantzia handia dutela gaur egun eta beraz honako galdera honek garrantzia handia hartzen duela: zer nolako curriculumak igortzen dute testuliburuak? Begoña Bilbaok berriki argitaratutako liburuak argi eta garbi erakusten du **euskal ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburu gehientsuenek ez dutela Euskal Herria aintzat hartzen**. Hutsuneak, espainiar argitaletxeen materialean ez ezik, euskal argitaletxeen produktuetan ere nabariak dira. Bide batez, esan beharra dago espainiar argitaletxeek izugarritzko indarra dutela Euskal Herrian, bai A eredu ikastetxeetan, baita D eredu ikastetxeetan ere. D eredu ikastetxeetan dagokionez,

Euskal Herriak Bere Eskolak Iruñerrian egin duen ikerketak erakutsi du eskualde horretan Espainiako argitaletxeak Euskal Herrikoak baino gehiago erabiltzen direla.

Curriculum propio bat garatzeko faktore baldintzatzaileak:

Eskoletan garatzen den curriculum aurreko bi faktoreek baldintzatzen dute. Alde batetik, curriculum ofizialak derrigorrezkoak dira eta administrazioak baditu bere bitartekoak ikastetxeetan egiten dena kontrolatzeko: ikuskariek arau legalak betetzen ote diren aztertzen dute eta zuzendariak legea betetzera beharturik daude. Administrazioak kontrol hori zorroztu edo bigundu dezake. Esaterako, ikasturte honetan bertan EAE-ko administrazioak hainbat eskolen egutegia atzera bota du, abenduaren 6a lan egun gisa izendatzeagatik. Nafarroako Gobernuaren esku-hartzea haratago joan da, argitaletxe jakin batzuren testuliburuak erabiltzeko presio egiteraino. Bestalde, estatu osoko ikasleek gaintitu beharreko frogak (selektibitatea Espainiako estatuan eta baxoa Frantziakoan) estatuak finkatutako edukiak ematen direnaren berme dira, froga hauek gaintzeko (eta gero eta gehiago, nota ona ateratzeko) prestatu behar baitira ikasleak. Beste alde batetik, Euskal Curriculum garatzeko baliagarria litzatekeen materiala falta da. Ikastetxeen eskura dauden testuliburu eta bestelako bitarteko pedagogikoak hankamotz geratzen dira.

Egoera honen ondorioz, euskal gazteek ikasketak amaitzen dituzte errealitatearen gaineko ikuspegi sendoa eskuratu gabe. Kontua ez da, soilik, Euskal Herriaren inguruko oinarrizko datuak eta erreferentziak ezagutzen ez dituztela. Kontua da hezkuntza sistemak ez diela errealitatea (Euskal Herria eta Mundua) ulertu eta eraldatzeko baliabide intelektualak bermatzen. **Gure kulturaren transmisioa eta berrikuntza bermatuko duen curriculum sortzeko apustu estrategikoa egin beharra dago.** Euskal Curriculum sortu eta garatu beharra dago.

b) Euskalduntzen ez duten ereduaren ezarpena:

Hizkuntza ereduaren politika ezarri zela 20 urte igaro diren honetan berau berrikusteko beharra areago eta nabarmenagoa dela baieztatu dezakegu. Izan ere, asko dira azken urte hauetan hizkuntza ereduaren politikaren agorpena baieztatu eta hizkuntza politika berri baten beharra planteatu duten eragileak eta ekimenak. Hala ere, zoritxarrez, ereduaren politikak indarrean jarraitzen du. Frantses estatuak uko egiten dio ofizialtasunaren aldarrikapenari. Nafarroako Gobernua, I eta J eredu berriak bultzatzen ari da, ingelerari ospea emanez euskal irakaskuntzari bidea ixteko. Bizkaia, Gipuzkoa, Arabako Gobernua, azkenik, hizkuntza ereduak bermoldatzeaz hitz egiten du etengabe, baina ez du neurri eraginkorrik hartzen. Eta egoerak bere horretan jarraitzen duen urte bakoitzeko, milaka euskal ikasle amaitzen dituzte beren ikasketak euskaldundu gabe, era horretan geure herriaren hizkuntzaren normalkuntza prozesuari oztopo berriak jarritz.

Erdal irakaskuntza eta euskal irakaskuntza:

Erdal irakaskuntzaren ezarpena

Estatu modernoak sortzearekin batera, hezkuntza sistema bateratuak sortu ziren. Estatu berri horiek hautatutako hizkuntza nagusia izan zen, aurrerantzean, irakaskuntzarako hizkuntza bakarra eta derrigorrezkoa. Hartara, hezkuntza sistemak estatuaren muga barnean harrapaturiko nazioak *erdalduntzeko* tresna izan ziren.

Lezioa ongi ikasteko aukera izan genuen euskaldunok, batez ere XIX. mendetik aurrera gaztelarazko hezkuntza sistema inposatu baitzigun sistematikoki Madrilek, lau herrialdetan; frantseserazkoa, berriz, Parisek, beste hiruetan. Gaztelera eta frantsesa ziren irakaskuntzarako hizkuntza bakarrak eta derrigorrezkoak. Eta eraztuna bezalako zigorren bidez euskara ikasgeletatik eta eskoletatik desagerrarazi egin zen.

Euskal irakaskuntza modernoaren sorrera

Euskal irakaskuntza herri ekimenez sortu zen, bereziki 60. eta 70. hamarkadetan. Aurretik esperientzia batzuk egonak ziren: 20. hamarkadan Bizkaiko auzo eskolak eta 30. hamarkadan Euzko Ikastola Batzarren sorrera. Gerra zibilak eta frankismoak saiakera horiekin amaitu egin zuten errotik. Hogeita hamar urte beranduago, ikastolak sortzen hasi ziren Euskal Herri osoan zehar.

- 64/65 ikasturtean, **596 ikasle** ari ziren ikastoletan.
- 1979.ean **172 ikastola** zeuden Euskal Herri guztian zehar.

Sare publikoan ere euskal irakaskuntza sartu egin zen. Herri ekimena erabakigarria izan zen kasu honetan ere. Alde batetik, hainbat eta hainbat ikastola publikatu zirelako, bereziki herri txikiak, 80. hamarkadan. Beste alde batetik, herritarrek eskola publiko eta euskalduna erdiesteko lan eskergea egin zutelako. Adierazgarria da, zentzu honetan, Iruñeko adibidea, non udal ikastola sortu baitzen 1978.ean.

Hezkuntza administrazio autonomikoak eta eredu politikaren sorrera

Horixe zen testuingurua, beraz, espainiar estatuak bere trantsizioa burutu zuenean. Euskal irakaskuntza errealitate sendoa zen ordurako, eta espainiar estatuak errealitate hori onartzea baino beste erremediorik ez zuen izan. Frantses estatuak, berriz, euskal irakaskuntza aintzat hartzeari uko egiten jarraitu zuen (eta jarraitzen du egun).

80. hamarkadan zehar bi hezkuntza administrazio autonomikoak eratu ziren: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bata; Nafarroan, bestea. Eta beren hezkuntza politika diseinatzeari ekin zioten. Baina Catalunya-ren bidetik jo eta ikasleriaren euskalduntzea bermatuko lukeen hezkuntza politika diseinatu beharrean, hizkuntza eredu politikara finkatu zuten.

Gauzapean praktikoa:

Egun Euskal Herrian lau hizkuntza eredu ditugu, eskolaren bidez ikasleen euskalduntzea bermatzen ez dutenak eta euskararen normalizaziorako oztopo nabarmena suposatzen dutenak gaur egunean:

- **G eta X ereduak.** Klase guztiak gaztelaraz edo frantsesez. Ez dago euskarazko irakasgairik.
Uneotan **89.666 euskal ikasle** ari da ikasten eredu honetan, **ikasleriaren %20,7**
- **A ereduak.** Klase guztiak gaztelaraz edo frantsesez. *Euskara* irakasgaia dago, lau ordu astean.
Uneotan **106.269 euskal ikasle** ari da ikasten eredu honetan, **ikasleriaren %24,6**
- **B ereduak.** Hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz.
Uneotan **72.419 euskal ikasle** ari da ikasten eredu honetan, **ikasleriaren %16,7**
- **D ereduak.** Klase guztiak euskaraz. Gaztelera edo frantsesa irakasgaia dago, lau ordu astean.

Uneotan **164.375 euskal ikasle** ari da ikasten eredu honetan, **ikasleriaren %38**

Beraz, hizkuntza eredu politikara martxan jarri eta bi hamarkadetara honako hau da errealitatea:

268.354 euskal ikasle euskalduntzen ez duten ereduetan ari da ikasten, ikasleria osoaren %62.

Ondorioak:

1.-Eskolak ez du euskalduntzen

Hizkuntza eskubideak urratzen dira, hots, ezein pertsonak bere herriko hizkuntza jakiteko eta ezagutzeko duen eskubide kolektibo eta indibiduala ez da betetzen. Ondorioz, euskararen biziraupena bera kolokan jartzen da. Izan ere, gaztelera eta frantsesa euskal herritar guztiarentzat derrigorrezko hizkuntzak dira eta jendearte esparru guztietan inposatzen zaizkigu. Euskara berriz, eskolan ez ezik jendearte ere bazterturik eta bigarren mailan dago eta egungo globalizazio fenomenoaren aurrean, neurriak hartzen ez baditugu bere etorkizuna ez da ziurtatzen. Eskolak ezinbesteko papera jokatzen du horretan.

2.-Euskaldundu gabeko belaunaldiak ateratzen dira urtero

Egoera bere horretan mantentzen den bitartean, euskaldundu gabeko belaunaldiak ateratzen dira urtero eskoletatik.

- Hurrengo hamazortzi urteetan euskaldundu gabeko 268.354 euskal ikaslek amaituko dituzte beren ikasketak.
- Hau da, batz bestea **14.908 ikasle urtero.**

Hezkuntza eskumenak eskuratu eta hogeit urtera, ez al da gehiegitxo?

3.-Euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da

Euskal Herriko hainbat eskualdetan euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da. Hau da, kontua ez da soilik eskualde horietako hainbat eta hainbat ikasle ez direla euskalduntzen, baizik eta horretaz gain euskaraz ikasteko oztopoak jartzen dituela administrazioak, sare publikoan D eredia debekatuz (Nafarroaren hegoaldean, Behe Nafarroan, Lapurdin, Zuberoan).

Honekin batera ez da ahaztu behar beste leku askotan, nahiz eta teorian D ereduko eskaintza egon, gero praktikan lekua falta delakoaren aitzakiaz, ikasle asko beste eredu batera pasatu behar direla edo beste herri batetara joan

4.- Migrazio politika euskalduntzen ez duten ereduak indartzen ari da

Ereduen politika eta migrazio politika desagokia darabilte administrazioek. Nolako osagaiak, halako emaitza:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eginiko estimazio batzuen arabera, bertan bizi diren etorkinen

- %68 A ereduan matrikulatzen da,
- %17,9 B ereduan
- eta %13,5 D ereduan.

Pentsatzekoa da beste lau herrialdeetan A eta G ereduetan matrikulatzen direnen portzentaia are eta handiagoa izango dela. Euskal herritar berrien hizkuntza eskubideak ere ukatu egiten dituzte administrazioek, beraz, eta euskal kulturaren murgil daitezela eragozten da.

5.- Atzerapausoak eman daitezke

Hizkuntza politika estatiko eta kontserbadore batek atzerapausoak planteatzea errazten du. Eta atzerapausoak suposatuz dezakete honako neurri hauek:

- Batetik, ingeles goiztiarraren ezarpena, bereziki euskararen berezko transmisioa bermatuta ez dagoen eskualdeetan.
- Bestetik, Nafarroako Gobernuak bultzatzen ari den I eta J ereduak.

c) Unibertsitate arrotzak: EHren beharrak alde batera utziz eraikiak

Euskal Herrian unibertsitate ugari ditugu, EAEko administrazioari begirako Universidad del País Vasco (UPV), Nafarroako administrazioaren Universidad Pública de Navarra (UPNA), Frantziako Paueko Unibertsitatearen delegazioa den Baionako Campusa, interes ekonomikoari begira sortutako Mondragon Unibertsitatea (MU) edota interes erlijiosoari begirako Universidad de Deusto edota Universidad de Navarra (Opus Dei). Albo batean UNEDek Euskal Herrian dituen delegazio ezberdinak utzi gabe. Baina zeri begirako interesak betetzen dituzte? Euskal Herrian behar dugun egitura unibertsitarioaren ordezkari al dira 6 unibertsitate hauetako baten bat? Zein jarrera dute gure hizkuntza, herri eta herritarrekiko?

Euskal herritarren hizkuntza eskubideak urratzen dituzte:

Ehundaka dira ikasturtez ikasturte egun Euskal Herrian dauden unibertsitate ezberdinetan matrikulatzen diren euskal ikasleak, ehundaka Euskal Herrian dauden unibertsitate hauetan lanean diharduten AZPeko langile edota irakasle euskaldunak. Horiek guztiak, ordea, egun dauden unibertsitateetan espainol edota frantsesez bizitzera kondenatuak daude. Oraindik orain ez da existitzen euskaraz funtzionatzen duen fakultate edota eskolarik gure unibertsitateetan, ondorioz euskal herritarrok atzeritarrak gara Euskal Herrian kokaturik dauden unibertsitate guztietan.

Euskara ez da lehenasuna unibertsitate hauentzako guztientzako: ez dira behar diren bitartekoak ezartzen euskaldunok euskaraz ikasi eta bizi ahal izateko, ez dute gure hizkuntzarekiko inongo errespeturik. Are eta gehiago esatera ausartuko gara, izan ere, maiz inongo itxurakeriarik egin gabe ez dute euskararen aurka publikoki agertzeko batere arazorik, euskal herritarroei egunetik egunera gero eta traba gehiago jarritz euskarazko jarduna bideratzerako orduan. Beste batzuk, aldiz, euskararekiko hitz polit ugari esaten dituzten arren, euskara itxura eta marketing kanpainetarako baino ez dute erabiltzen.

Gaur egungo errealitatea euskal ikasleek, oro har, beraien ikasketak euskaraz egiteko hautua egiteko aukera dutenean ere zailtasun eta traba ugari aurre egin behar diotela da etabehatutako ikasketak

euskaraz burutzea ezinezkoa bilakatzen zaie. Ikasturteetan aurrera egin ahala, euskararen presentzia desagertzen doa eta zer esanik ez beraien ikerketak edota 3. zikloko ikasketak burutzerako orduan, euskararen presentzia hutsaren hurrengo bilakatzen da.

Oro har, zailtasun ugari daude unibertsitate hauetan euskaldun gisa bizi ahal izateko. Euskal Herriak eta euskal herritarrok osoki euskaraz jardungo duen unibertsitate baten premia dugu, euskararekiko “alma materra” izango dena gainontzeko unibertsitateekiko.

Euskal Herriaren behar unibertsitarioak ez dituzte bermatzen:

Euskal Herriak baditu aurre hartu beharreko erronka ugari, baditu behar unibertsitario ugari. Herri ukatua den heinean askatu beharreko hainbat arazo ditu. Herriaren biziraupenerako ezinbestekoak diren erronka kultural, ekonomiko, politiko, sozial... anitz ditu, Euskal Herri osoa aintzat harturik burutu beharko lirakekeen ikerketen premia du.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: egungo unibertsitateek beraien izaera espainol edota frantsesaren mugak oso agerikoak bilakatzen dira eguneroko jardueran. Bertan lanean diharduten ikerlari eta irakasleek izugarritzko muga estrukturaleri aurre egin beharrean aurkitzen dira egunez egun. Eta aldiz unibertsitateek aurrera eramaniko ekimenak askotan gure herriaren kontrako ekimenak dira laguntzarako baino.

Euskal Herriak bere behar eta erronka unibertsitarioei aurre egingo dien unibertsitate baten premia du.

Euskal herritarron ahotsa ez da errespetatzen:

Arestian aipaturikoak ez dira unibertsitate herritarrak, ez dituzte euskal herritarron hitza eta borondatea errespetatzen. Gutxi batzuen interesen arabera eraiki eta gestionatutako unibertsitateak dira. Bai estatu frantses zein espainiarrak aplikatu nahi dituzten lege arrotz eta prozesu ezberdinak euskal herritarroi eta are gehiago bertako komunitate unibertsitarioari informatu gabe eta beraien hitza eskatu gabe aplikatzen dituzte. Botere eta agindu organoak ez dira komunitate unibertsitarioaren adierazgarri, baizik eta eliteak bideraturiko unibertsitate organo antidemokratikoak.

Horren adibide garbia dira azken urteetan aplikatu diren lege ezberdinekiko unibertsitate hauen agintari guztiak aldeko postura hartu izan dutela eta aldi berean ez dietela komunitate unibertsitarioari adierazi, ez informatu ezta erabakitzeke aukerarik izan, berau gestionatu baino ez dutelarik egin.

Euskal Herriak parte hartze demokratikoa eta herritarra bideratuko duen unibertsitatea behar du.

d) Euskal Herrian ikasteko eskubidearen urraketa

Gaur egun Euskal Herrian ikasteko eskubidea ere urratuta dago. Gure herriak jasotzen duen zatiketa estatala eta administratiboak bi motatako uraketa eragiten du:

- 1- Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiaren artekoa: kasu honetan bi estatu ezberdinen hezkuntza sistemak izatearen arazoa dago. Lehenengo hiru herrialdetan ikasten duen ikasle batek bigarren lau herrialdetan dagoen unibertsitate batean ikasteko bi sistemetako azterketak gaintitu behar ditu: lehenengo baxoa burutu beharko du bere titulua eskuratzeko eta ondoren selektibitatea unibertsitate sartzeko. Aurretik aipatu bezala bi curriculum daudenez honek bikoitza ikastea eskatzen du. Gainera orain dela urte gutxirarte azterketa hau Parisen burutu behar zen eta gazteleraz. Honetaz gain hizkuntza arazoa gehitu behar diogu, inongo unibertsitatek ez baitu euskaraz funtzionatzen.
- 2- Bigarren multzoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa eta Nafarroaren artekoa da. Administrazio ezberdinak izateak ez du eragiten azterketa berdina izatea. Hala ere barruti ezberdinetan ikasteak bai sortzen dituela arazoak: lehenengo plazak beti Komunitate Autonomo horretan ikasi dutenek edukiko dituzte. Egoera honek kalte

egiten die batez ere Nafarroa Garaiko ikasleei, bertan dagoen hezkuntza eskaintza txikiagoa baita.

e) Lanbide Heziketak euskaldunak eta herritarrak izatearen ukapena

Azkeneko urte hauetan Heziketa zikloen ugaltzea ezagutu du Euskal Herriak. Izan ere, gero eta ikle gehiago hurbiltzen dira heziketa zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetara (batez ere portzentaiei dagokionez). Bide honetan, hainbat arrazoi aipatu behar dira, ikasketa hauek aukeratzeko dituzten ikasle kopurua zergatik hain handia den ulertzeko:

- 1.- Unibertsitateen gain saturazioa dago.
- 2.- Unibertsitate ikasketetako iraupena luzea (3,4,5,6... urte), eta urte horietan zehar, klase magistralak dira nagusi, klase praktikoen kalterako.
- 3.- Ikasketa berrien agerpena da. Izan ere, betiko ikasketen artean krisialdia dagoen arren, ikasketa berriak beti sortzen dute erakarpen berezia ikasleengan.

Aipatu faktoreek, gehi egon daitezkeen beste batzuk (instituzio zein hezkuntza sailetatik egin diren kanpaina izugarriak, kasu) ekarri dute heziketa zikloen gaineko "boom" delakoa (Bizkaian, adibidez, 2002-03 kurtsuan batxilergoa bukatu duen ikasleriaren ia %50ak Lanbide Heziketetan matrikulatu egin da).

Dena den, Lanbide Heziketen gorakada honek, irakaskuntzan gainontzeko ikasketetan dagoen arazoa agerian utzi du, euskararen egoera inon baino larriagoa baita.

Lanbide Heziketen antolaketa eta euskararen egoera:

Egoera juridiko-politiko aztertzeko orduan, bi dira kontuan izan beharreko puntuak; batetik, Euskal Herria bi estatu eta hiru administrazioen menpean dagoela, eta bestetik, ez dagoela inon jasota Lanbide-Heziketen euskalduntzea osotasunean bultzatzeko araurik, atal partzialak jasotzen dituzten arauak egon arren. Administrazio ezberdinen jarrerak ezberdinak diren arren, ez dago inon euskalduntze plangintzarik, eta gure herria bere osotasunean hartuko duen euskalduntze plangintzaren beharra inoiz baino garrantzitsuagoa da.

a. Frantziar estatua:

Frantziar estatuko Lanbide-Heziketa 1993an onartutako legearen arabera antoaltzen da. Horren arabera Lanbide-Heziketa bi eremutan antolatzen da:

- Lehenengo talde batean ikasketa terminalak daude; hau da, ondoren ez dago gehiago ikasterik, hots, lan mundurako irteerak dira. Ikasketa terminal hauek, edo CAPak, derrigorrezko hezkuntzan irakaskuntza-sistemak ikasle txar moduan aitortzen dituen horientzat dira. Bide batez, CAPak bi taldetan antolatzen dira: derrigorrezko hezkuntza gaindituta izan behar ez dutenena (enpresetan betetzen dituzten hiru urtetako ikasketak dira) eta derrigorrezko hezkuntza gainditurik izan behar dutenena (bi urtetako ikasketak dira).
- Bigarren talde batean jarraipena duten ikasketak daude. Hauek ere bi taldeetan banatzen dira: BEP ikasketak, derrigorrezko hezkuntza gaindituta (ez dira ikasketa terminalak), bi urte ondoren, azterketa bat egin eta batxilergoa egiten jarrai dezakete edo goi mailako heziketa ziklo bat aukeratu, azken hauek bigarren taldea osatzen dute, hauen bukaeran bi aterabide daudelarik; lan mundua edo unibertsitatea.

a.1 Lapurdi, Baxenafarroa, Xiberoa:

Hiru herrialde hauetan ez dago heziketa zikloak euskaraz ikasterik.

b. Espainiar estatua:

Espainiar estatuan duela urte batzuk ekin zitzaion Lanbide-Heziketen erreformari. Hiru helburu zituen, batez ere: lan merkatuak eskatzen zituen langile kualifikatu berriei bide egitea, Europar Batasuneko ikasketekin espainiar estatuan irakasten zirenak homologatzea eta azkenik, Lanbide-Heziketak prestigiatzea ikasleak bertaratzeko asmoarekin.

Lanbide-Heziketak hiru taldetan banatzen dira: goi mailakoak (batxilergoa egin behar da), erdi mailakoak (derrigorrezko irakaskuntza gainditu behar da) eta Gizarte segurantzakoak (derrigorrezko irakaskuntza gainditu gabe dutenentzat, gutxienez titulo bat izan dezaten).

Dena den, Madrilen onarturiko Lanbide-Heziketen legeak hiru aldaketa nagusi ekarriko ditu: lehen, ikastetxe integratuen (heziketa zikloak eta formakuntza jarraia eskaintzen dituzten Lanbide-Heziketetako ikastetxeak) desagertzea, sorrera estatuaren esku geldituz; bigarrena, ikastetxeen zuzendaritzaren hautaketa administrazioaren esku geldituko dela; eta hirugarrena, ikastetxea eta enpresaren arteko harremanak estutuko dira, enpresen partehartzea ikastetxeetara zabalduz.

b.1 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa:

Hiru herrialde hauetan legez euskaraz ikasteko eskubidea dagoen arren, izatez eskubide hori ez da bermatzen. Neurri isolaturen bat hartu da baina ez dago euskalduntze plangintza orokorrik. Gainera, neurriok irakasle, ikasle, guraso edo elkarleen borondatean oinarritzen dira. Horrela, kopuru bat dago finkatuta heziketa zikloa euskaraz eman dadin (10 ikasle). Euskarazko materialgintza bultzatzeko dirulaguntzak bideratzen dira Hezkuntza sailetik (oso motelak eta ez dira nahikoak) eta internet-en hainbat helbide sortu dira material euskalduna eskuragarri egoteko (eraginkortasuna falta zaio). Irakasleen birziklapenari begira, neurri orokorra den arren, Lanbide-Heziketetan gutxiago aplikatzen da.

b.2 Nafarroa Garaia:

Jakina denez, herrialde honetako hainbat zonaldeetan euskaraz ez dauka ofizialtasunik. Beraz, zonalde horietan ikastolen bidez bakarrik sortu daitezke euskarazko heziketa zikloak (zoritzarrez, ikastola hauen egoerak oztokatzen du heziketa zikloak sortzea). Bestalde, euskarazko talde bat sortzeko ez dago kopuru finkorik. Administrazioaren erabaki politikoen menpe dago eskeintzea edo ez. Dena den, badaude ikastetxe batzuk, non ezkutuan bada ere, euskaraz irakatsi egiten duten.

Euskararen egoera datuetan (???) EZ DAKIT BEHARREZKOA DEN ATAL HAU:

Jarraian azaltzen diren datuek argi eta garbi adierazten dute euskararen egoera larria lanbide heziketan. Hala ere, zentzu honetan ohar bat egin behar dugu: datu hauek eskuratzeko zailtasuna nabaria izanik, tentu handiz hartu behar dira. Euskarazko eskaintza hemen azaltzen dena baino txikiagoa baita oraindik.

		Erdi mailakoak	Goi mailakoa
NAFARROA	Guztira	32	35
	Euskaraz	2	2
ARABA	Guztira	45	59
	Euskaraz	1	1
GIPUZKOA	Guztira	129	188
	Euskaraz	38	52
BIZKAIA	Guztira	156	214
	Euskaraz	18	24

f) Hezkuntza Sistema propioa antolatu eta egituratzeko eskubide urraketa

Hezkuntza bitarteko propioen beharraz oharturik, eginbehar horri heldu diogu euskaldunok. Azkeneko hamarkadei erreparatu, geure herrian egondako hezkuntza ekimenen ugariak ohartzen gara. Batzuk bakarrik aipatzearen: ikastolen mugimendua, euskal eskola publikoaren aldekoa, eskola publikoan auzoz auzo euskarazko lerroak irekitzeko egindako lana, ikasle mugimendua egindako ekarpenak, euskal unibertsitatearen alde emandako urratsak, hezkuntza ez-formalaren eta aisialdiaren eremuan egondako ekimenak, gaztetxe, eskola, auzo elkarte zein kultur etxeetan burututako tailerrak, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eraikitako hezkuntza-sarea... Gainera, eredu propioa garatzeko ekimen horien oinarrian hezkuntzaren ikuspegi aurrerakoa garatzeko kezka presente egon da.

Saiakera hauek, kanpotik ezarritako lege, dekretu eta bestelakoekin topatu egin dira askotan. Izan ere, hezkuntza sistema propioa izateko aukera historikoki ukatua izan zaigu. Eta gaur egun, edalontzia erdi beterik ikusiko du batek eta erdi hutsik besteak; baina, edozein kasutan ere, euskal lurraldean garatzen den hezkuntzaren ardatz nagusienak Parisen eta Madrilen finkatzen direla errealitate objektiboa da. EAeko eta Nafarroako gobernuak ardatz horiek egokitu eta kudeatzeko eskumena baino ez daukate. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan ez dago horretarako aukerarik ere, guztia Pariseko Gobernutik gestionatzen da. Errealitate hau gordinki azaldu zaigu azkeneko urte hauetan egondako hezkuntza esparruaren berrantolaketarekin.

Frantziar hezkuntza sistema:

Paris hainbat neurri hartzen ari da hezkuntza esparruari dagokionean, berau Europar Batasunaren administrazio- eta ekonomia-irizpideetara egokitzeko asmoz. Baina funtsean, Euskal Herriarekiko, zaharrak berri:

- Lapurdik, Zuberoak eta Behe Nafarroak ez dute hezkuntza mailako eskumenik.
- Baionan dauden fakultateak, Pabeko Unibertsitatearen menpe daude. Ehunka euskal ikasle kanpora joatera beharturik aurkitzen da.
- Euskal irakaskuntzari etengabeko oztopoak jartzen zaizkio. Euskara ez da ofiziala, eta beraz murgiltze eredia ez dago baimendurik sare publikoan. Ikastolei dagokionez, azpiegitura, irakaslego eta finantziario arazo etengabeak egin behar diete aurre.

Espainiar sistemaren berrantolaketa:

Espainiar estatuak azkeneko hamarkada luzean egindako hezkuntza berrantolaketari handienari ekin dio, honako neurri nagusi hauen bidez: Humanitateen Dekretua, Kalitatearen Legea, Lanbide Heziketen Legea eta Unibertsitateko Legea. Neurri eta lege hauek guztiek honako hiru ezaugarri hauek dituzte:

1. Madrilen erabaki eta Hego Euskal Herrian ezartzen dira.
2. Espainiar hezkuntza sistema homogenizatu eta fiskalizatzea bilatzen dute.
3. Hezkuntzaren gaineko ikuspegi atzerakoi, akademizista eta autoritarioan oinarritzen dira.

Neurri hauek Hegoaldeko euskal lurraldeetan aplikatzen ari dira. Hezkuntza sistema propioaren beharra inoiz baino ageriagoa da, azken finean Hego Euskal Herriko bi hezkuntza administrazioei Madrilen onartutakoa aplikatzea beste aukerarik ez baitaie geratzen.

Nafarroako Gobernuaren kasuan, kolaborazioa erabatekoa da: hezkuntza eredu berriak, testuliburuak zentsuratzeko egitasmoa, unibertsitatean euskara debekatzeko legea egiteko saiakera (porrot egin zuena), euskarazko ikastetxeak ezartzen zaizkien etengabeko oztopoak....

EAeko Gobernuaren kasuan, hezkuntza sistema/esparru propio baten aldeko diskurtsoa egiten da, baina praktikan Madrilen ezarritako neurriak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe eta unibertsitateetan aplikatzen ari direla ikusten dugu.

Lege, dekretu eta neurri hauek guztiek hezkuntza sistema propio baten bidean orain arte eman ditugun urratsak kinka larrian jarri nahi dituzte, eta horregatik, ezin ditugu onartu. Guk dakigu, inork baino hobeto, zer nolako hezkuntza eredia behar dugun herri honetan. Areago, hezkuntza eredu hori eraikitzekeo determinazioa hartua dugu. Eta beraz, inposaketa hauei guztiei erantzun sendoa ematearekin batera, hezkuntza eredu horren eraikuntzari eutsiko diogu, oraindik indar eta gogo handiagoz, emateke ditugun urratsak emanez.

• URTEETAKO ESPERIENTZIA ETA AURRERAPAU SUAK:

XIX.mendean hezkuntza sistema modernoak sortu eta orokortu zirenetik, hezkuntza oso loturik egon da eskola eta unibertsitatearen esparru formalera. Ez da beti horrela izan. Belaunaldiz belaunaldiko ezagutzaren transmisioa, komunitatean, herrian, sendian... eman izan da gurean. Eta XXI.mendearen hasiera honetan ere, inoiz baino nabariagoa da hezkuntza prozesua ez dagokiola soilik hezkuntza sistemari, kolektibitate osoari baizik. Globalizazioaren garai honetan, non pentsamendu eta bizi eredu uniformeak zabaltzen ari den, eskolak gutxi egin dezake gazteon hezikitari dagokionean, beste instituzio sozialen laguntzarekin ez bada.

Orain arte, euskaldunok geure hizkuntza, kultura eta mundu ikuskera belaunaldiz belaunaldi igortzeko eta egoera berrietara egokitzeko gai izan gara. Honaino iritsi izana, horra hor baieztape horren frogarria da. Eta hau horrela izan da, hezkuntza sistema propioa antolatzea eragotzi eta hezkuntza sistema arrotzak inposatu zaizkigun arren. Indarrez inposatu ere.

1720.urtean, Beasaingo maisua kontratatu zutelarik, honako irizpide hau finkatu zioten: *“que no les permita hablar en vascuence sino en castellano, poniendo anillo y castigándoles como merecen”*. Euskaraz mintzatzen zen ikasleari, eratzuna ematen zion maisuak eta ikasle horrek euskara erabiltzen zuen hurrengo ikaskideari pasa behar zion. Egunaren amaieran, eratzuna zeukan gixajoa zigortzen zuen maisuak. Bada, eratzun anker horren erabileraren azken testigantza 1950. hamarkadako da. Hau da, euskal eskoletan berrehundaka urtez indarrean egondako praktika bortitza izan da hori. Eta berrehun urte asko da. Berrehun urtez beste hizkuntza bat, beste kultura bat, beste mundu ikuskera bat... inposatu digute, besteak beste hezkuntza sistemaren bidez, espainiarra bata, frantsesa bestea, baina biak hala biak desnazionalizazio trenza. Egun ere pairatzen ari gara akulturazio prozesu horren ondorioak.

Alta, egoera kezkarri horren aurrean, euskaldunok hezkuntza bitartekoak sortzeko gai izan gara. XIX. Mendean amaieran hurrei euskararen gramátika irakasteko liburuak argitaratzen hasi zen. 1896an lhenengo euskarazko eskola sortu zuen Azkuek Bilbon. Hogei urte beranduago, Bizkaiko auzo eskolak irekitzen hasi ziren, harik eta 1923an, lehenengo, eta 1937an, behin betiko, debekatuak izan arte. 1946an Elvira Zipitriak eskolak ematen hasi zen Donostiako bere etxean, eta 1959rako baziren 17 Donostian ziharduten etxe-eskolak. 60. eta 70. hamarkadetan ikastolen mugimendua loratu egin zen, eta 80. hamarkadatik aurrera eskola publikoan ere euskarazko lerroak eta ikastetxeak ireki ziren.

80ko hamarkadaren bukaeran eta bereziki 90eko hamarkadan ikasle mugimendu modernoak sortzen da Euskal Herrian, eta berehala hasten da garatzen Hezkuntza Propioaren alde. Honela 90eko hamarkadaren bukaeran euskalduntzearen aldeko ildoak irekitzen ditu eta Herri Eskolen inizatiba jartzen du martxan, autogestioaz, berriro ere, nahi eta behar dugun ereduak lantzen hasten da. Euskal Unibertsitatea eta Euskal Curriculumak eskatzen da lehenengo aldiz eta honek islada izango du hurrengo urteetan (2000ko hamarkadan) sortuko den Herri Mugimenduan, baina hori hurrengo puntuan azalduko da.

Ahalegin hauei guztiei esker, gure kultur ondarearen adierazpenik nabarmenena, euskara, berreskuratu, batu eta eskola munduan bere lekua lortzen hasi da. Askok geratzen da oraindik egiteko hezkuntzaren alorrean, noski: egun euskal ikastetxeetan ikasten ari den hamar ikasletik sei ez da euskaldunduko, eta unibertsitatean nahiz lanbide heziketan euskararen presentzia oso urria da. Hala ere, euskarazko hezkuntzak urrats asko eman dituenik ezin uka.

Ordea, gauza bat euskarazko hezkuntza da eta, bestea, hezkuntza euskalduna. Euskalduntzeko, euskara ezagutzeaz gain, Euskal Herrian sortu edota egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak bereganatu behar dira. Horrekin batera, XXI.mendeko euskaldunak hezi nahi baditugu, euskaldun gaurkotuak, behar berriei egokituak eta aurrerapenetan txertatuak behar ditugu.

EUSKAL CURRICULUMAREN SORRERA PROZESUA:

Euskal Curriculumak Euskal Herriko ikastetxe batean ikasten ari den 16 urteko gazte batek gutxienez ezagutu beharko dituen kontzeptuak, lortu beharko dituen trebetasunak eta bereganatu beharko dituen baloreak bilkuko dituen txostena da. Euskal Herri osorako baliagarria izango den erreferentzia pedagogikoa, hain zuzen ere.

Gaur egun ez dago osatua, eta, ondorioz, euskal ikasleek frantziar eta espainiar curriculumek finkatutako edukiak bereganatzen dituzte neurri handi batean (historia, kultura...). Gabezia horri aurre egiteko 2003. urteko urtarrilean Udalbiltza, Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek curriculum propioa sortzeko akordioa sinatu zuten. Akordio horren arabera, Euskal Curriculumak bost urratsetan gauzatuko da.

1. urratsa: Egitasmoaren oinarri filosofiko eta pedagogikoak bilduko dituen eta lanaren metodologia zehazten duen txostena adostea.

2.003. urtean bertan adostasuna lortu zen, aipatu oinarriak "Euskal Curriculumak: marko teorikoa eta plangintza estrategikoa" txostenean jasotzen direla.

2. urratsa: Euskal curriculumak osatuko duten jakintzagaiak zehaztu eta jakintzagai horietan adituak direnen ekarpenak bilduko dituen azterlana egitea

Lan horren ardura Ikastolen Konfederazioak hartu zuen, EAE-ko Hezkuntza Sailarekin hitzartutako diru-laguntza lortu zuela haren finantzaketari aurre egiteko. 2.004ko ekainean lanaren emaitza aipatu bi eragileok aurkeztu zuten, Donostian: "Euskal Curriculumak: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena" izeneko liburua.

3. urratsa: Euskal irakaskuntzan diharduten irakasle adituek euskal curriculumaz egingo duten proposamen tekniko biltzea.

Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek lan hori gauzatzearen ardura hartu zuten, eta berau osatzeko beharrezkoa duen aniztasun eta adostasunari erantzuteko asmoz, zenbait hezkuntza eragilerekin (Eskola Kristauak, EIB, Euskal Haziak...) eta EAEko Hezkuntza Sailarekin bi elkarteak akordioa lortu zuten. Lanaren emaitza 2005ko martxoan aurkeztu zen, Bilboko Euskalduna Jauregian, "Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumak" izenburupean. Maiatzean, eremu publikoko hainbat eragilek (guraso elkarteak eta zuzendari elkarteak) prozesua nola garatzen ari zen kritikatu eta EAEko Hezkuntza Sailaren lidergoa eskatu zuten.

4. urratsa: Hezkuntza erkidegoaren zein oro har herritargoaren parte hartzea ahalbidetu eta ekarpena biltzea.

Prozesuaren urrats honetan gaude. Alde batetik, Ikastolen Konfederazioak, Sortzen-Ikasbatuazek, Eskola Kristauak eta bestelako eragileek eginiko proposamen tekniko eztabaidagai jarriko dute eskolaz eskola. Beste alde batetik, Udalbiltzak herri eragileen ekarpena biltzeko ardura hartu du, horretarako 10 lan-eremu zehaztu eta dinamizatzaile talde bat osatuz. 320 eragileari informazioa bidali eta horietako askorekin zuzenean egon da bere iritziak jasotzeko. Urtarrilean, ondorioak plazaratzeko ihardunaldiak antolatu zituen.

5. urratsa: Jasotako ekarpenekin aberastutako txostena onestea.

Hala eskoletan nola jendartean jasotako ekarpenekin, azkeneko txostena osatu eta onartuko da, alegia, Euskal Curriculumak onartuko da. Oraindik ez da zehaztu hau nola egingo den.

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ERAIKUNTZA:

Egun Euskal Herrian dauden unibertsitateek gabezia larriak dituzte; izan ere, Euskal Herriaren beharrak asetzeko aginak egon beharrean, espainiar eta frantziar interesi begira eginak daude. Esan daiteke ez direla euskaldunak, ez izenez eztea izatez ere. Alde batetik, ez dagoelako Euskal Herria orain erabat euskalduneko duen fakultatearik, eta bestetik, egungo unibertsitateetan irakasten diren edukietako asko euskaldunentzako arrotzak direlako.

Gabezia horietaz oharturik eta unibertsitate propio bat herri baten garapenerako estrategikoa dela ikusita, zenbait euskal herritarrek unibertsitate berri baten aldeko apustu garbia egin dute. Gure herriaren garapenerako eginga eta erabat euskalduna izango dena bere funtzionamenduan eta jardueran guztietan (alor akademikoa, administratiboa, ikerketa...).

Horretarako proiektu honen aintzidari den Udako Euskal Unibertsitatearekin harremanetan jarri dira Nazio Garapenerako Biltzarra eta baita beste hainbat eragile ere, proposamen ezberdinak egin daitezten. UEUK euskal unibertsitate baten alde urteetan eginiko lanari jarraiki, bere 2002ko Kongresuan euskal unibertsitatearen aldeko hautu sendoa hartu zuen eta bide horretan beharrezko bitartekoak sortuko zituela erabaki zuen. Horietariko bat Euskal Unibertsitatearen aurreproiektua egiteaz arduratuko zen Sustapen Batzorde bat sortzearena. Sustapen Batzorde honek azken urteetan lan mardula egin du eta jadanik eskuartean du Euskal Unibertsitatea sortzeko aurreproiektua. Aurreproiektu honek lau atal nagusi ditu: arlo juridikoa, ekonomikoa, akademikoa, merkatu ardatza, arlo soziala eta politiko instituzionala eta azpiegiturari dagokion arloa. Datozen hilabeteetan eman beharreko pausua aurreproiektu izatetik proiektu bilakatzea izan behar du.

ESKOLAK EUSKALDUNTZEKO PROPOSAMEN INTEGRALA:

Milaka dira gaur egun ikasketak euskaldundu gabe bukatzen duten ikasleak. Euskal Herria hiru administrazio-eremuetan zatiturik dago, eta euskararen estatus juridikoa tokian-tokian ezberdina da. Hala eta guztiz ere, euskal lurralde guztietatik ateratzen dira euskaldundu gabeko ikasleak. Esan daiteke, beraz, duela 25 urte inguru abian jarritako hizkuntza eredu politikoa ez dela nahikoa izan.

Euskaldunduko duen eskola behar-beharrezkoa da herri bezala bizirauteko, horixe baita belaunaldi berriak euskalduntzeko biderik aproposena. Horregatik gero eta eragile, instituzio, ikastetxe sare zein kontseilu gehiagok Euskal Herri osorako eredu berri bat aldarrikatzen du, ikasle guztiek euskalduntzeko duten eskubidea eta betebeharra bermatuk duena.

Hezkuntzako eta euskalgintzako eragileek bereziki, baina baita bestelako herri eragile andanak ere, konpromisoa hartua dute ildo horretan antolatzeko eta euskaldunduko duen eskolaren aldeko aldarria ahalik eta gehien zabaltzeko. Gaur egunean bakoitzak duen proposamen zehatzaren gainetik, guztien arteko antolakuntza honetatik etorri beharko da euskaldunduko duen eta Euskal Herri osorako baliagarria izango den murgiltze proposamen bat. Barne mailan bada ere, ildo honetan aurrerapen garrantzitsua ematen ari dira, datozen hilabete zein urteetan argia ikusiko duena.

****) Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenaren sorrera:***

Euskal Herria hezkuntza esperientzietan aberatsa izan da eta aberatsa da gaur egun ere. Oztopoak oztopo, herri mugimenduaren bidez urrats garrantzitsuak eman dira euskal hezkuntza sistemaren eraikuntzaren ildoan. Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenaren sorrera urrats berri bat izan da bide horretan. Honako ekarpena egin nahi du, hain zuzen ere, herri ekimenak: Euskal Herriko herri eta auzoetan dauden hezkuntza beharretatik abiatuta, herri eta auzo bakoitzean euskal hezkuntza sistemarantz urrats praktikoak eragingo dituen mugimendua sortzea. Izan ere, herri-ikuspegitik abiatutako tokian tokiko lan praktikoa funtsezkoa dela deritzogu. Eta elkarrekin (ikasleak, irakasleak, gurasoak zein herritarrak; haur hezkuntza, lehen hezkuntza zein bigarrenekoak; ikastetxe batekoak zein besteak) urrats berriak emateko aukeran sinesten dugu.

Izana:

Euskal Herriak Bere Eskola hainbat herrietako eta auzoetako herri ekimenez osaturiko hezkuntza alorreko Herri Ekimena da. Bere iharduera-esparrua Euskal Herria da. Herri eta auzoetako ekimen horietako bakoitzak bere izaera propioa badauka ere, elkarren arteko helburu, zeregin eta ezaugarri komunak ditugu. Helburu horietarantz urratsak emateko eta aipatu zereginen inguruko elkarlana bideratzeko asmoz, tokiko ekimen horiek Euskal Herriak Bere Eskola Herri Ekimenean batzen gara. Beraz, herri bakoitzak bere ildo propioa du, eta koordinaketa nazionala guztion arteko elkartrukea eta elkarlana bideratzeko tresna da.

Herri ekimena edo ekimen herritarra da ikasle, irakasle, guraso zein herritarrez osaturiko eragilea den aldetik, ikastetxetatik eta herrietatik era herrikoian sortutakoa. Herri eta auzo bakoitzari, zein oro har Euskal Herriari, hezkuntza eredu propio bat dagokiola pentsatzen duen orok dauka bere lekua Euskal Herriak Bere Eskolan.

Helburuak:

Euskal Herriaren eskola, hau da, gure jendartearen eta berau osatzen dugun norbanakoen (norbanako guztien) nahi, desira eta beharrei erantzuna emango dien hezkuntza sistema propioa, da gure xedea.

Hezkuntza sistema propio hori beharra, nahi eta eskubidea dela pentsatzen dugu.

Herri mugimenduaren ekinaren ekinez hezkuntza sistema propio horren aldeko urrats garrantzitsuak eman direlakoan gaude. Halaber, urrats berriak Herri Mugimenduaren eskutik etorriko direlakoan gaude

Egitekoak:

Hezkuntza eredu propio baten aldeko Herri Mugimendua sustatzea

Hezkuntzaren inguruan emandako urratsak Herri Mugimenduari esker eman direla kontuan izanik, EHBEn zeregin nagusia herri eta auzoetan hezkuntzaren inguruko mugimendua sustatzean eta bere magalean biltzean datza.

Herri bakoitzak dituen hezkuntza-beharrak jorratzea

Herri edo auzo bakoitzean hezkuntzaren inguruan dauden nahiak eta beharrak jorratzeko asmoa dauka EHBek, helburu zehatz eta eskuragarriak finkatuz eta horien inguruko lan praktikoa eginez. Halaber, hurbilen dauzkagun helburu txiki horien eta urrutiago geratzen den helburu orokorraren (hezkuntza sistema propioa) arteko zubia izan nahi du.

Herri bakoitzean lanean ari diren sektoreen arteko elkarlana sustatzea

Herri bakoitzean badira hamaika lagun hezkuntzaren inguruko kezka daukatenak eta lan bat edo beste garatzen dutenak (irakasleak, ikasleak, gurasoak, ikastetxeak). Herri bakoitzean dauden hezkuntza beharren inguruko elkarlana bideratzea da EHBEn beste zeregina.

Hezkuntza-proiektu euskaldunak bultzatzea

Gaur egun herrietan martxan diren hezkuntza-proiektu euskaldunak, hala sare publikokoak nola kanpokoak, hala hezkuntza formalekoak nola ez-formalekoak, bultzatzeko asmoa dauka EHBek.

Aldarrikapenak:

Arestian aipatu bezala Euskal Herriak Bere Eskolaren helburua Euskal Hezkuntza Sistema Propioa lortzea bada, herri ekimenaren lana beronen aldeko dinamika soziala bultzatzean datza batetik (beharra nahiz premia ikustaraztea zein azaleratzea eta bide horretan indar bilketa irudikatzea) eta bestetik, beronen egikaritzarako testuinguru egokia lortzea, praktika alternatiboak bultzatuz.

2002.urtean Zarautzen eginiko Mintegietan Euskal Hezkuntza Sistema Propiorantzko bidean herri ekimenaren lehentasunezko aldarrikapenak finkatu ziren eta Aldarrikapen Taula deiturikoan biltzen dira:

1.-Euskal Unibertsitate: Euskal Herriaren beharrak bideratuko dituen unibertsitate euskaldun, herritar eta demokratiko baten beharra.

2.- Euskal Curriculum: Ikuspegi kritiko batetik, jendartearen eraldaketa bilatuko duen eta euskal kulturaren transmisioa zein berrikuntza ahalbideratuko duen Euskal Herri osorako erreferentzia pedagogiko baten beharra.

3.-Lanbide Eskolak euskaraz: Euskal Herriaren behar laborar errealak asetzeari eta pertsona prestatuak sortzeari bideratua egongo den Lanbide eskola euskaldunen beharra.

4.- Haur eskola euskalduna, hezitzailea eta herritarra: Egungo haur eskolei aitortzen zaien funtzioez haratago, heziketa euskaldun, hezitzaile eta herritarra bermatuko duen haur eskola eredu berri baten beharra.

5.- Eskolak euskaldundu behar du: Egungo hizkuntza ereduaren gainera eskolaren bidez ikasleen euskalduntzea bermatuko duen planteamendu integral baten beharra.

euskal herriak bere eskola

2006ko apirila. Euskal Herria